

Goazen aterpera!



Klaseak bukatu dira. Gontzal, Janire, Izaskun eta Gorka oporretan daude eta aterpe batera joan dira.

- Hau da lekua? – esaten du Gorkak.
- Bai. Polita, ezta? – dio Izaskunek.
- Askok gustatzen zait – dio Janirek.

Autobusetik jaitsi eta logeletara doaz motxilak uztera.

- Begira! Horiek dira gure armairuak – esaten du Izaskunek.
- Ziur zaude? – galdetzen du Gorkak.

Logela bakoitzean lau ohe eta lau armairu daude. Armairuen barruan ispiluak. Gorkak ireki du eta...

- Nor da hori? – galdetzen du Gorkak.

- Ixilik, kaiku hori! Zeu zara eta! – esaten du Izaskunek.

Jan baino lehen, jantziak motxilatik atera behar dituzte eta oheak egin.

- Erantzi arropa horiek eta jantzi txandala – dio monitoreak.

Baina Janire eta Gontzal lasai daude ohe gainean.

- O! Zein ondo nagoen! – esaten du Gontzalek.

Monitoreak azken abisua eman du. Janire eta Gontzal ohetik salto egin eta jantziak aldatzen ari dira.

- Arin, Gontzal! Jateko ordua da – dio Janirek.

- Banoa, banoa – dio Gontzalek.

Azkenean, badakizue: “Lan lasterra, lan alferra”. Janirek eta Gontzalek jantziak nahastu dituzte eta nolako nahaste-borraste antolatu duten! Gorka eta Izaskun barrez lehertzen ari dira.



GOAZEN ATERPERA

Eman erantzuna galdera hauei:

1.- Nortzu daude oporreten?

.....

2.- Nora joan dira Gontzal eta bere lagunak?

.....

3.- Nondik jaitsi dira?

.....

4.- Zertara doaz logeletara?

.....

5.- Zer dago logela bakoitzean?

.....

6.- Non daude ispiluak?

.....

7.- Zer egin behar dute jan baino lehen?

.....

8.- Nola daude Gontzal eta Janire ohe gainean?

.....

9.- Zer ematen du monitorea?

.....

10.-Nork esaten du "Arin, Gontzal"

.....